



## LAN TALDEAREN BILERA

DATA: 2014-11-18

BILERA ZENBAKIA: 15

ORDUA ETA LEKUA: UDALETXEAN 19,00TAN

PARTEHARTZAILEAK: 3 EMAKUME ETA GIZONEZKO 1

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. Herriko festetan ogitartekoekin lortu ziren 400€ak Elikagaien Bankura bideratuko dira.
2. Herriko zerbitzuen gida 2015eko egutegian txertatuko da : udal zarbitzuak, hezkuntza, osasuna eta elkarteak. Iada diseinua egin dago eta dena horrialde batean azalduko da.
3. Aurreko bileran erabakitzeko gelditu zen, Euskal Fondoari bideratu edo guk kudeatu diru laguntza. Aurtengoa Euskal Fondoari bideratzea erabaki da, datorren urterako erabakia hartuko da momentua iristen denean.
4. Ongizateko lantaldearen balorazioa oso ona da orokorrean : kideen artean harreman ona, lanerako gogoia eta ilusioa, ideiak pixkanaka aurrera ateratzen dira. 2015ari begira, urte haseran egiten den plangintza ahal den nehurrian betetzea, bertan jende adituaren kolaborazioa sustatzea eta ekimen berriak proposatzea lirateke helburu nagusiak.
5. Berdinbidean-ekin egin den elkar lanarekin jarraitzea ez da oso garbi ikusten. Aldez, kolaborazio honek suposatzen duen gastua (1.500€) taldetik kudeatzea proposatzen da, zuzenean herrian eta herriko jendearengan eragina izango duten ekintza konkretuak sustatuz.
6. Urtea bukatzeko bi pelikula proposatzen dira : Azaroaren 25ean NAGORE eta Abenduaren 9an INTOCABLE, bakoitzak gai potoloak aztertzeke aukerak ematen dituztenak. Datorren urteari begira ildo berean jarraitzeko asmoa dago eta hasteko Urtarrilak 22an EL METODO ARRIETA izango da ikusgai. Hemendik aurrera, zehazteke daude aukeratuko diren gaiak eta hauek lantzeko pelikula edo dokumentalak.
7. 2015eko aurrekontuak : Udaletik kudeatzen diren gaiei aurre egiteko eta gaur egungo krisi egoera kontuan izanik, Udalarik 3000€ko diru laguntza bat eskatzea erabaki da. Diru kopuru hau Ongizate taldeak proposatzen dituen ekintzak eta zuzenki herritarren oinarritzko hainbat beharrei aurre egiteko erabiliko dugu. Horretarako teknikariak aurreikusi bat egingo du



bere zuzeneko ezagutzak ematen dizkion datuen arabera.

8. Abenduan ez dago lan talde bilerarik, beraz Urtarrilean bilduko gara berriro eta 2015ari begira plangintza bat egingo dugu. Plangintza honen erronka berriak, bataz beste, honako hauek dira : adinekoekin harremana sendotu eta beraiekin ekimen konkretuak proposatu,herriko medikuarekin eta Nagusilaneko kideekin batera bolondresen gaia aztertu eta bultzatu eta « denboraren bankua »ren gaiari eldu eta hau kudeatzeko tresnak landu

ETXEKO- LANAK	NOIZKO?	ZEINEK?

### HURRENGO BILERA

Hurrengo bilera,2015eko Urtarrilaren 13an arratsaldeko 7tan Udaletxean.

Gai ordena:

- Plangintza orokorra zehaztu
- Adinekoekin harremana nola sustatu
- Bolondresen gaia nola bultzatu
- Denboraren gaia nola kudeatu
- Berdintasunaren gai nola landu
- Pelikulen zikloa antolatu